



## DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

### EMAKUNDE

1. Emakumeen elkartegintza eta emakumeek EAEko eremu guztietan parte har dezaten sustatzea ..... 2
2. Diru-laguntzak, 2017. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat ..... 3
3. Udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei diru-laguntzak, emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa kontratatzeko ..... 5
4. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko ..... 7
5. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2017ko deialdia ..... 9



#### 1.- Izenburua

**Emakumeen elkartegintza eta emakumeek EAEko eremu guztietan parte har dezaten sustatzea**

#### 2.- Araua

Ebazpena, 2017ko abenduaren 01ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena.

#### 3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren esparruan eta Erakundearen helburuekin bat etorriz, 376.000 euro eman zitzaizkien emakumeen elkarte, federazio eta fundazioei, horiek zuzenean eragin dezaten euskal gizartean emakumeek duten partaidetzan eta horien sustapenean.

Horrekin, nahitaezko zeregin bat egin zen, Emakundek programatutako jardueren osagarri; izan ere, gizartea sensibilizatzea beharrezkoa da, funtsezko helburua lortu ahal izateko.

#### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017eko deialdian, 135 eskabide aurkeztu ziren, eta 122ri eman zitzaien diru-laguntza. Gainerako 13ak, ukatu egin ziren: 5, mistoak izateagatik; eskabide 2 emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sensibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen diru-laguntza lerrora pasa izan dira, eskabide 1 uko egin du eta 5 diru-laguntza jasotzeko gutxienezko puntuazioa ez lortzeagatik.

Diru laguntza jaso duten elkarteak 41.100 bazkide dituzte, gutxi gorabehera. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren helburuak garatzen uzten duten jarduerak egiteko diru-laguntzak dira.

Lortu dira aurreikusitako emaitzak, bai egindako programen kalitateari dagokionez, bai diru-laguntza horren onuradun direnen kolektiboari dagokionez. Gure balorazioaren arabera, bete da deialdi horretan aipatutako adierazlearen aurreikuspena. Izan ere, 100etik 140ra eskabide aurkeztea aurreikusten zen 2017rako memoria ekonomikoan.



## 1.- Izenburua

**Diru-laguntzak, 2017. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko azaroaren 25ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2017an diru-laguntzak ematea arautzen eta iragartzen duena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Egokia da emakumeen aurkako indarkeriari buruz sentsibilizatzeko eta hura prebenitzeko proiektuak, programak, ekintzak edo estrategiak abiarazten dituzten erakundeei laguntzea.

2017ko deialdirako aurreikusitako helburuei dagokienez, hauek aipa daitezke:

- a) Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.
- b) Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen egitura-kausak ezabatzea.
- c) Emakumeen aurkako indarkeria eta haren magnitudea ikusaraztea.
- d) Gizarteak emakumeen aurkako indarkeriarekiko duen tolerantzia gutxitzea.
- e) Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen oinarri diren balioak, sinesmenak eta jarrerak aldatzea.
- f) Lanaren eremuan eta etxean emakumeei eta gizonei izendatzen zaizkien rolak aldatzea, rol horiek baitira gaurko gizartean nagusi den desberdintasun-egoeraren "haztegi".
- g) Berdintasunaren aldeko jarrera proaktiboak sustatzea, bai helduen artean, bai haurren eta nerabeen artean.
- h) Berdintasunaren aldeko hezkuntza hobetzea ikastetxeetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sistemarik onena denez gero.
- i) Herritarrei informazioa ematea emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari eta mikromatxismoei buruz, desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria hasiera-hasieratik identifikatu ahal izateko.
- j) Herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen aurkako indarkeria-jokabideen larritasunari buruz eta gizartearen gaitz hori ikusarazteko premiari buruz.
- k) Bizitza pertsonalean, gizartean, familian eta lanean —alor guztietan—berdintasuna —benetakoa eta eraginkorra— lor dadin sustatzea.
- l) Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen gizarte-eragile guztiek parte har dezaten erdiestea.
- m) Emakumeen autonomia sustatzea haien bizitzaren eremu guztietan.



- n) Emakumeen posizio soziala eta ekonomikoa indartzea.
- o) Indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratu eta laneratu daitezten lortzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programaren magnitudeekiko erlazioa eta erabilgarritasun eta eragin soziala.

Diru-laguntza hauetara, berrehun eta berrogei mila euro bideratu dira (240.000 €). Deialdi honetan, proiektu bakoitzeko gehienezko zenbatekoa 12.000 euro izango dira; erakunde bakoitzari bi proiektu lagunduko zaizkio gehienez ere —betiere, proiektu horiek xede desberdina badute—, erakunde eta proiektu gehiagori aukera emateko.

Urtean 102 proiektu aurkeztu dira eta hauetatik 40 jaso dute diru laguntza. Proiektuak Ebaluazio Batzordeak baloratu ditu, deialdi honen helburuak eta aurreikusitako gizarte-eragina kontuan hartuta.

Ikusten denez gero eta interes gehiago pizten du diru laguntza honek.



## 1.- Izenburua

**Udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei diru-laguntzak, emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa kontratatzeko**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2016eko abenduaren 1ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2017ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko deialdia egin eta diru-laguntza horiek arautzen dituen. Diru-laguntza horiek emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko emango dira.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren helburua da EAEko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei 2017. urtean emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ematea.

Deialdi honetan, lehen aldiz diagnostikoa edota berdintasunerako plana egiten duten udalerriei, koadrilei edota mankomunitateei lehentasuna ematen zaie, herri guztiek emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak garatu ditzaten. Halaber, mankomunitate, koadrila eta udalerrimultzoek elkarturik proiektuak egiteari lehentasuna ematen zaio, politika publikoek beren ingurunean helmen eta oihartzun handiagoa dutelako. Berdintasunerako teknikariaren kontratua luzatzeari eta/edo zuzeneko kontratazioari ere lehentasuna emango zaio.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiaren zenbatekoa 360.000 eurokoa izan da.

63 proiektu aurkeztu ziren. Horietatik 6 ukatu ziren:

- 3 deialdiak eskaturiko puntuazioa ez lortzeagatik
- 3 deialdian xedatutako baldintzak ez betetzeagatik

33 diru-laguntza eman ziren, 25 udalerriri eta 8 mankomunitateri, 360.000 euroko zenbatekoagatik.

Emandako diru laguntzen emaitzaren arabera:

- 15 diru-laguntza eman ziren diagnostikoak, berdintasun planak eta ebaluazioak egiteko.

Horietatik:

- o 7 lehenengo diagnostiko edota planak izan dira
- o 7 bigarren, hirugarren edo/eta laugarren diagnostiko eta/edo berdintasunerako planak edota ebaluazioak izan dira.



- 1 berdintasunaren aldeko gobernantzak egiteko izan dira.
- 18 proiektu diagnostiko eta plan sektorialak egiteko dira. Horiek, udaletako hainbat esku-hartzetan emakume eta gizonen egoeraren ezagutza hobetzea eta beharrian konkretuetara hobeto egokitutako programak garatzea ahalbidetuko dute. Horietatik 8 izango dira indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko protokoloak ebaluatzeko, indarkeria matxistaren egoeraren diagnostikoa egiteko eta indarkeria matxistaren plana egiteko.



## 1.- Izenburua

**Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko**

## 2.- Araua

Ebazpena, 2016ko abenduaren 2koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuei 2017. urtean diru-laguntzak emateko deialdia arautzen da, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko (EHAA, 224 zk., 2016ko abenduaren 22koa, osteguna).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, enpresei eta erakunde pribatuei diru-laguntzak ematen zaizkie, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, eta, horrela, laguntza teknikoa izan dezaten, enpresa edo erakunde pribatu horietan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko bat eta berdintasun-plan bat egiteko.

Programa honetako diru-hornidura laurogei mila eurokoa da (80.000,00).

Enpresak inplikatu nahi ditu programak, berdintasun-politikak ezar ditzaten enpresa barruan eta inguruarekin izaten dituzten harremanetan. Zehazki, legez behartuta ez dauden enpresei lagundu nahi zaie: laguntza teknikoa ematen zaie berdintasun-diagnostiko eta -plan bat egiteko, eta, gutxienez, hogeit hamar ordu eskaintzen zaizkie enpresetan berdintasunari buruzko sensibilizazioa/prestakuntza emateko. Orobat, diru-laguntza jasotzen duten enpresek konpromisoa sinatzen dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren erakunde bihurtzeko, hau da, enpresetan dauden desberdintasunak gutxitzeko jarduera jarraituak egiteko konpromisoa, besteak beste: aukera-berdintasuna sustatzea langileak kontratatzerakoan eta langileen sustapen eta prestakuntzan; bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartzeko neurriak ezartzea; sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurrea hartzea; enpresaren produktuetan berdintasuna sartzea eta abar.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

14 entitate aurkeztu ziren eta, deialdiaren irizpideak aplikatu eta gero, bi geratu ziren kanpo, bata eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik eta bestea diru-laguntza eskuratzeko irizpideak ez betetzeagatik. Azkenik, 12ri onartu zitzaizkien diru-laguntza eta ez zen amaitu aurrekontu-kreditua; eta hauxe geratzen da esleitu gabe: 8.266 €.



Diru-laguntza esleitu zitzairen erakundearen artean, 2 Arabakoak, 3 Gipuzkoakoak, eta 7 Bizkaikoak. Jarduera-eremuari dagokionez: eraikuntza arlokoak, zerbitzuak, berrikuntza, gizarte-zerbitzuak, informatikakoak eta prestakuntza, besteak beste

Diruz lagundutako erakunde guztiek jende askori ematen die zerbitzua, eta pentsatzekoa da berdintasun-plan horiek martxan jartzeak inpaktu biderkatzaile handia izango duela etorkizunean, bai eskaintako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokienez, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak lortzeko orduan dauden desorekak murrizteari dagokionez.

Ikusi denez, kontratazioaren alorreko berdintasunaren aldeko klausulak funtsezko tresnak dira berdintasun-enpresak erakartzeko. Alde batetik, entitateek kontsulta gehiago egin dituzte, aurreko prestakuntza-enpresek hain zuzen. Beste alde batetik, diru-laguntzak eskatzen gora doan taldea dela ikusi da. Kasu guztietan, honako hauek hartu dira kontuan: berdintasunari buruzko diagnostikoa eta plana egiteko aurreko proposamenaren kalitatea, planak zenbati eragingo dien zuzenean, erakundeko pertsonen partaidetza-maila, jarduera-eremua, neurria, lurralde-eremua eta dibertsitate-maila nolakoa den erakundeko langileen artean.





## 1.- Izenburua

**Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2017ko deialdia**

## 2.- Araua

2017ko martxoaren 21eko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2017. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia onartzen duena.

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ongi definitutako hiru motatako bekek mantentzen dira 2017an, hiru motatako ikerlanak egiteko diseinatuta, bakoitzarentzat ezarritako aztergai hauen arabera: 1. mota: gizarte-esparru guztietan balio-aldaketa lagunduko duten eta berdintasunerako eraldaketa soziala bultzatuko duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta faktoreak aztertzea; 2. mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen taldean, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzerakoan, eta segurtasunean; eta 3. mota: erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta ekimenak eta estrategiak bilatzea emakumeen lidergoa eta ahalduntze politikoa eta soziala mesedetzeko.

Horrela, bada, deialdi honen bidez, azterlanen eremu horiek dinamizatu nahi dira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egin daitezten ahalbidetu nahi da. Bekak alor horretan espezialista diren banakoei edo taldeei emango zaizkie, ikerlanen kalitatea bermatzeko eta aipatutako helburuak lortzeko.

## 4.- Lortutako emaitzak, eta erabilgarritasun eta eragin soziala

2017ko ekitaldian, hogeita bost eskaera hartu ziren 1. motako beka lortzeko. Horietatik, onuradun bat izendatu zen, hamazortzi ordezkotik, eta zortzi eskaera atzera bota ziren arrazoi berarengatik (deialdian eskatutako gutxienezko puntuazioa ez lortzea). Beka onuradunaren gaia da "EAEko emakumeen despatriarkalizaio maila eta Euskal demokraziaren kalitatean duen ondorioa". 2. motako bekek hamabost eskaera hartu zituen. Horietatik, onuradun bat izendatu zen, hamabi ordezkotik, eta bi eskaera atzera bota ziren arrazoi berarengatik (deialdian eskatutako gutxienezko puntuazioa ez lortzea). Beka onuradunaren gaia da "Emakume heldu adinekoen aurkako tratu txarrari begirada bat: egiturak eta zerbitzuak aztertu egokitu ahal izateko". 3. motako bekek bederatzi eskaera hartu zituen. Horietatik, onuradun bat izendatu zen eta zortzi ordezkotik. Beka onuradunaren gaia da: "Emakumeen parte-hartze politikoa Arabako kontzejuetan: presentziak, motibazioak eta estrategiak." Bekak esleitzeko prozedura lehia-konkurrentziarena izan da, baremoari eta prozedurari buruz deialdian ezarritako irizpideekin bat etorruta.



Hiru motetako beketan 2016. urteko deialdian egindako ikerlanen balorazioa 2017an amaitu da eta ikusi da bete dituztela deialdian planteatu ziren helburuak, eta lagundu dutela berdintasunaren bidean aurrera egiten mota bakoitzeko bekei dagokienez. Hauek izan ziren ikerketa-lanak: - "Euskadiko indarkeria sexistari buruzko imaginarioak eraldatuz: Emakume ekintzaileen narratiba erresilenteak", - "Poliziaren atxiloketaren esperientzia Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeengan" eta - "Misoginia eta neomatxismoa emakumeei buruzko albisteen aurrean: foro mediatikoetako publikoaren parte-hartzearen analisi bat".

Aldez aurretik erabakitako 10 hilabeteko epean egin zen prestakuntza eta bekadunentzat ekarri duen onura argi geratu da, gero izan duten destinoa ikusita: batzuetan, burutzen ari diren doktorego-tesiaren ikerketa markoan sartuko da bekaren babesean egindako ikerlana; beste batzuetan, antzeko beste ikerlan batzuen bidez jarraipena egingo da eta, edozein kasutan, garapen profesionalaren zati bat izateko. Gainera, azterlan horiei zabalkundea eman zaie hainbat eremu eta euskarritan argitara emanez Emakunderen webgunean, kongresu eta jardunaldietan...; eta Dokumentazio Zentroan gordailutu dira jendearen esku egon daitezen aurrerantzean kontsultatzeko, ikerlan horietan aztertutako esparruetan.